



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Prentsa zerbituza

BEHARGINTZAK 164 PERTSONA AHOLKATU ZITUEN 2012an ETA 61 ENPRESA SORTZERA LAGUNDU ZUEN

Durangok ekintzaile gehien izan zituen herria izan zen, Behargintzara hurbildutako %43a hain zuzen.

Eragileen profilari dagokionez, gehienak gazteak dira, 25 eta 45 urte bitartekoak, lanbide-heziketako ikasketekin edota lizenziatuak eta orohar teknología berriak erabiltzen dituztenak. Gizonezko zein emakumezkoen artean oreka bat egon zen. Enpresa berrien sektorei dagokionez, merkataritza eta enpresei zein pertsoneri zerbitzuak eskeintzekoak izan ziren.

Iaz, 2011. urtean jasotako datu hobegoak dira. Orain dela bi urte 146 pertsona hurbildu bait ziren Behargintzara eta 58 enpresa sortu ziren.

Durangoko Merindadeko Mankomunitateko garapenerako agentziak, Durangaldeko Behargintzak, 164 pertsona aholkatu zituen pasadan urtean bere enpresa sortzeko helburuarekin. Horietatik 81 gizonak izan ziren eta 78 emakumeak. Guztira 61 enpresa berri abian jarri ziren eta 97 lanpostu sortu zirelarik. Aholkularitza zein enpresak sortzeko zerbitzuak, 2011. urtean baino pertsona gehiago lagundu zituen. Orain dela bi urte, 146 pertsona aholkatu bait ziren eta 58 enpresa sortu ziren.

Pertsonen jatorrizko datuei dagokionez, durangarrek zerbitzua gehien erabili zutenak izan ziren, guztira %43a., 71 pertsona (35 gizon eta 36 emakume). Abadiño izan zen bigarren, 17 ekintzaileekin (10 gizon eta 7 emakume); Elorriok 12 ekintzaile izan zituen (7 gizon eta 5 emakume); Iurretak 7 (Gizon bat eta 6 emakume); Mañariak 3 (Gizon bat eta 2 emakume); Zaldibarrek 3 (2 gizon eta emakume bat) eta Atxondok 2 (2 gizon). Gainontzekoak, Durangaldetik kanpo etorri ziren.

EKINTZAILEEN PROFILA

Behargintzara hurbildu diren %46 lanean zeunden eta banakako enpresa sortzeko informazioa nahi zuten. (36 gizon eta 40 emakume), gainontzekoak langabezia zeunden.

Adinari dagokionez, sustatzaileen profila oso gaztea da, lanbide-heziketa ikasketekin edota lizentziatuak, 25 eta 45 urte biartekoak eta teknologia berriak erabiltzen dituztenak.

ENPRESEN TIPOLOGIA

Ekintzaileek gustukoak izan zuten forma juridikoa banakako enpresarena izan zen, guztira 51 pertsona (%84). Bigarren sozietate mugatuak (5 enpresa), Ondasun-erkidegoak (4 enpresa) eta Kooperatiba (enpresa bat).

Sektoreak kontutan hartzen baditugu, 61 enpresetatik 21 merkataritzakoak izan ziren, pertsonen zerbitzuak eskeintzekoak 16 eta enpresei zerbitzuak eskeintzekoak ere 16. Ostaritzako enpresak berriz 4 izan ziren eta eraikuntza, nekazaritza, garraioa eta artisautza sektoreek berriz bana sortu zuten..

ZERBITZUA

Durangaldeko Behargintzak, eskualdeko enpresa berriak sortzeko aholkularitza eta formazioa eskeintzen du. Ekintzaileek, enpresa berriaren finantzaketa, eraketarako izapide legalak, forma juridikoa, enpresak sortzeko diru-laguntzak, enpresa kudeatzeko formazioa edo beste edozein erantzuna aurkituko dute Behargintzan.

Pasadan urtean hiru prestakuntzarako ekintzak burutu ziren eta 36 pertsonen parte hartu zuten.

Mankomunitateak zerbitzua eskeintzen hasi zenetik, 1.200 sustatzaile, (1.000 proiektuekin), hurbildu dira informazioaren bila. Urte hauetan 300 enpresa sortu dira Durangaldeko sektore desberdinetan, ostalaritzan, merkataritzan edota enpresei eta pertsonen zuzendutako enpresak.